



**La Guerra Civil en Euzkadi. 136 testimonios inéditos recogidos por José Miguel de Barandiaran**

Presentación de José María de Gamboa y Jean-Claude Larronde.

Milafranga-Villefranque : Edit. Bidasoa - Instituto de Historia Contemporánea, 2005. - 743 p. ; 25 cm. - ISBN: 84-88464-03-7

Oroimenaren Urteko bezperetan *La Guerra Civil en Euzkadi* liburu mardulak argia ikusi du. Bertan 136 testigantzek eskeintzen dizkigute 1936-1939ko gerra zibilari buruzko historia eta istorioak, gordintasun eta aberastasun osoz. Izan ere ez dira urte zenbait beranduago idatziriko justifikazio diskurtsuak, suertatu berriak ziren gertaeren deskribapenak baizik. Lekukotasun horiek jasotzeko Historiaurreko arlotik zetorren ikerlaria, Jose Miguel Barandiaran ikerlari ezaguna hain zuzen ere aritu zen. Bera ere, gerra hori zela medio, mugaz bestaldera joateko eta bizitzeko behartuta, Manuel Intxaustik luzaturiko gonbiteari eutsi zion eta 1936ko irailaz geroztik 1940ko maiatza arte jardun zuen gerrari buruzko testigantzak biltzen.

Ataundarrak jasotako lekukotasunak eman zituztenen artean profil batzuk nabarmentzen dira. Alde batetik, apezak eta fraideak nagusi ditugu. Ziur aski, Barandiaranek erbesteratu horiek, izaeraz eta bizitokiz, gertuenak zituelako. Baina era berean, pilpilean zegoen euskal Elizaren eta gerraren arteko auzia argitu nahi zutelako. Bestetik euskal buruzagi abertzaleak daude beste multzo handi bat osatuz. Azken horien artean, Euzko Alderdi Jeltzaleko lurraldetako kontseiluko ordezkari zenbait izateaz gain, Jabier Landaburu, Manuel Irujo, Telesforo Monzón, Jose Maria Lasarte bezalako diputatuak ditugu, beraiek bizitutakoa kontatzeko. Guzti horiek ez ezik, bada makina bat jende ere horrelako goi mailako ardura politikorik ez zuena, hala nola, sindikalistak, arrantzaleak, fabriketako langileak eta enpresari txikiak, maistrak... gerran pairaturikoa gogorazten dutenak.

Beraiei esker, hainbat tokitan zein esparru politikoetan, ñabardura eta aldagai anitzekin, gerraren ondorioz gertaturikoa argitu daiteke. Esate baterako, Guda zibilarren kasian, militarren altxamenduaren aurrean hainbat alderditan, Euzko Alderdi Jeltzalearen kasua nabarmenduz, suertatu ziren eztabaidak eta eritzi kontrajarriak. Euskal Elizan izan ziren jokaera desberdinak ere, aniztasun eta zehaztasun handiz isladaturik azaltzen zaizkigu orain argitaraturiko orrialde horietan. Era berean, gerrak frontetik kanpo garatu zituen esparru errepresiboak, atzeragoardietan bereziki burutu zirenak eta egungo oroimen historikoak berreskuratu nahi dituenak ere agertzen zaizkigu behin eta berriro 1937-1940ko txosten edo adierazpen horietan. Edukin horiek mamitzeko Barandiaranek elkartu zuen testigantzen multzo handia eta hainbat lekukotasun berezik duten garrantzia ere kontuan izanda bilduma liburu hau oso emaitza bikaina dela deritzogu.

On Joxe Miguelek ixilpean egindako lan hori ahozko historia eta idatzizkoa uztartuz, aitzindaritzat jo dezakegu. Gertaeren garaikoak zein lekukotasun hurbilak eskein-

tzeaz gain, aberastu egiten du aipaturiko auzi horietaz gure ezagutza historikoaren maila. Bide batez, historian oso ohikoak ez diren hainbat ahots, herri apalarenak, testigantza horien artean leku handia dutelako, ikuspegi berritzailea ematen diote hortik abiatu daitekeen diskurtsu historikoari. Iraganetik datozen ahotsak izateaz gain, Klio aharraren mundutik kanpo sarritan egon diren hainbat gizaki mintzatu ziren behin betiko on Jose Miguel Barandiarani esker. Hala ere hortxe antzeman dezakegu bere alderik ahulena, gerraren ondorioz, erbestean egon ziren esparru gizapolitiko askoren gabezia hain zuzen ere. Jakina denez, 1936ko urriaz geroztik, Barandiaran zegoen eskualdean, Ipar Euskal Herrian edo Basses Pyrénées deitzen zen barrutian, korrante politiko guztietako partaideak kokatu ziren. Arestian aipatu dugun legez, 136 testigantza kopuru arras handia bada ere, hor zegoen aniztasun politiko ideologiko hori isladatzeko, errena suertatzen zaigu. Sozialistak, komunistak edo anarkistak hutsaren hurrengoia dira elkarriztatuen artean, baita ordezkari errepublikanoak ere. Dena den, testigantzen bilduma horren gabezia ez da soilik horrelako lanari lepora dakioken hutsa, erbesteratuen testigantzen bitartez egin diren antzeko lan gehienei baizik. Izan ere, 1936-1939ko erbesteak izan zituen kokaleku nagusietan, Frantzia edo Mexikon, esate baterako horrelako lanak askoz beranduago burutu zirenean antzeko desorekak suertatu ziren. Antonio Sorianoren *Éxodos*, Neus Cataláren *De la resistencia y la deportación* edo Mexikon "Instituto Nacional de Antropología e Historia"ko taldeak egindako *Palabras del exilio* lanak, Barandiaranek egindakoarekin, gaia edo elkarriztatuen aldetik, parekatu daitezkeenak, horrek eskeintzen digun informazio oparoa ere, guzti guztiek bere inguru politikoaren arabera eman zuten. Baina horietan ere, antzeman daiteke lehen aipaturiko akatsa, joera politiko-ideologikoak jasotzeko dagoen testigantzen lerrotatze desorekatua.

Bistan dago ekimen miresgarri baina bakarko horiei zor diegula lekukotasun asko jasota izatea, baina, argi dago ere lan amankomunak eta elkarlanek emaitza askoz onuragarriagoak emanen zituela. Gaur egun Jose Miguel Barandiaranek testigantza horiek jaso zituenetik, 70 urte betetzen ari direnean, zoriondu ditzakegu bai bera eta bere lan eskerga hura argitara eman dutenak. Elkarlan historikoari dagokionez, orduan bezala, historiagileok dexente hobetu beharra dugulakoan nago. Gerra eta erbesteko mundua zuzen-zuzen ezagutu eta bizi zuen Manuel Tuñón de Lara maixu zaharrak idatzi zuen legez, erbesteaz hutsune itsas tamainokoak ditugu, eta horiek ikuspegi eta lan talde zabalak eskatzen dituzte. Hori gauzatzen ez den bitartean, ongi etorriak izan daitezen, Barandiaran bezalako aitzindarien lanak.

*Josu Chueca Intxusta*